

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Bultzada Ekintzaileak enpresako bederatzi proiektu berritzaile babestuko ditu laugarren edizioan

*Martxoaren 18ra arte aurkeztu daitezke laguntzeko programa honetarako hautagaitzak, Caja Rural de Navarra, Cinfa, Mondragon Korporazioa, Correos, Jofemar, MTorres, Mutua Navarra, Uscal eta Viscofanek babestutako programa*

Lunes, 15 de febrero de 2016

Nafarroako Gobernuak "[Bultzada Ekintzailea](#)"

programaren laugarren edizioa abian jarri du; haren bidez, enpresako bederatzi proiekturi –aurreko edizioetan baino bat gehiago– laguntza tekniko eta finantzarioko berariazko programa bat emango zaie konpainia aholkularien eskutik, negozio-ideien garapena bizkortzeko eta enpresaren sorrera errazteko asmoz.



Ayerdi lehendakariordea eta Sodenako zuzendari nagusia, enpresa babesleetako ordezkariekin.

Edizio berri honetan Caja Rural de Navarra, Cinfa, Mondragon Korporazioa, Correos, Jofemar, MTorres, Mutua Navarra, Uscal eta Viscofan dira babesleak, eta aurreko edizioetako enpresa laguntzaileei aurten Uscal gehitu zaie. Konpainia horietako bakoitzak proiektu bat bultzatuko du 8.000 euroekin eta aholkularitzako ekintzekin.

Programa honen laugarren edizioa gaur goizean aurkeztu du Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manuel Ayerdik, enpresa babesleen ordezkariak ere parte hartu duten ekitaldian (lankidetzaren hitzarmenak sinatu diren enpresetako ordezkariak); Sodenako zuzendari nagusi eta Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzako Europako Zentroa (CEIN) sozietate publikoko kontseilari delegatu Pilar Irigoien ere bertan izan da.

Lehendakariordeak enpresei eskerrak eman dizkie ekintzaitza sustatzeko (ekonomikoaren motorretako bat) lankidetzaren publiko-pribatu honetan parte hartzeagatik

"Gure konpromisoaren adibide garbi bat da, ez soilik programarekiko, baita Nafarroako ekintzaitza bultzatzeko nahiz gure Foru Komunitate garatzeko ere", aipatu du; jarraian enpresari aholkulariek Bultzada Ekintzaileari ematen dioten balioa azpimarratu du. "Programa honek finantza-laguntza bat baino askoz gehiago eskaintzen du, zuen esperientzia".

## Lau hilabete

"Bultzada Ekintzailea" programak hautatutako bederatzi proiektu berriei, lau hilabetez, Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa sozietate publikoak (CEIN) prestatutako enpresen sorrera bizkortzeko berariazko programa bat eskainiko die; haren bidez, negozio-ideia bat garatu eta egiaztatzea lortuko dute eta enpresa-jarduera bat hasteko prestatzea. Proiektu bakoitzak, gainera, bere enpresa-babeslearen laguntza jasoko du, eta azken horrek bere esperientzia, ezagutza eta zuzkidura ekonomikoa emango dio.

Proiektu parte-hartzaileek banakako tutoretzak jasoko dituzte, eta CEINeko Berrikuntza Haztegian instalatu ahalko dira 6 hilabetez doan, eta Sodenaren finantzaketa jasotzeko lehentasuna izango dute.

### Hautagaitzak, martxoaren 18ra arte

Programa jatorria edozein izanda ere ekintzaileak diren pertsonentzat da, berrikuntza-proiektu bat dutenak, hazteko ahal dutenak eta Nafarroan errealitate bihurtu nahi dutenak.

Proiektuak honako esparru hauen barnean sartu ahalko dira: nekazaritza-elikadura, automobilgintza, biosanitarioa, IKT, industria, logistika, energia berriztagarriak, ingurumena, mekatronika, turismoa, merkataritza eta zerbitzuak.

Parte hartzeko interesa duten pertsona ekintzaileek honako webgune honetan eskura daitekeen formularioa bete behar dute: <http://www.cein.es>. Hautagaitzak aurkezteko epea martxoaren 18ana amaituko da.



Ayerdi lehendakariodea Viscofango ordezkari Armando Ares agurtzen.

Eskaera guztiak jasotzen direnean, CEINen ebaluazio-batzorde batek lehen aurrehautaketa bat egingo du 20 proiektuekin gehienez. Aurrehautaketa hori ondorengo irizpideetan oinarrituko da, esaterako: talde ekintzailea, negozio-ereduaren azterketa, hazteko ahala, berrikuntza eta betetako helburuak.

Proiektu parte-hartzaileen azken hautaketa apirilaren 19rako iragarrita dago; une horretan, hautatutako proiektuak bederatzi enpresa babesleek baloratuko dituzte, eta haietako bakoitzak lagunduko duen proiektua hautatu eta programan sartuko da.

Guztira, 473 proiektu aurkeztu ziren "Bultzada Ekintzailea" programaren aurreko hiru edizioetan, eta 22 proiektuk parte hartu dute. Orain arte 17 enpresa sortu dira, 2.754.000 euroko inbertsioa egin da eta 47 lanpostu sortu.

### Hirugarren edizioko esperientziak

Hirugarren edizioan parte hartutako zenbait proiektu beren finantzaketa negoziatzen ari dira gaur egun. Inbertsio gehienak aurten egingo dituzte, eta langile-kopurua handitzea ere aurreikusten dute ere.

Javier Urricelqui eta Alayn Loayssa dira Up Technologies-en sustatzaileak, Bultzada Ekintzailearen hirugarren edizioko proiektu parte-hartzaileetako bat. Haien proiektua, laster enpresa bihurtuko da, zuntz optikoan banatutako sentsoreen instalazioan oinarritzen da egitura handietan tenperatuta monitorizatzeko edo elongaziorako, eta industriako hainbat sektoretan aplikatzen da.

Beren hautagaitza aurkeztu zuten "gurea den zerbait abiarazteko asmoz, eta arrakasta izateko berme handienarekin CEINek egiten zigun jarraipenari esker, bizkortzeari, aholkularien babesari eta zuzkidura ekonomikoari esker, proiekturako beti ongi datorrena".

Haietzat, programari esker, "ideia baliozkotzat jo ahal izan dute, bideragarria den gutxieneko produktu bat zein unetan genuen erabakitzen eta negozio-plana behar bezala garatzen. Parte hartu izan ez bagenu, ziur asko egin ahalko genituen akatsak saihesten lagundu digu".

Multihelpers-ek ere iazko deialdian parte hartu zuten, ekonomia kolaboratzailearen web-plataforma

bat da, eta pertsonen arteko harremana izaten uzten du Adrián Miranda, Ramón Sola, Alberto Aguado eta Javier Guembek egindako eguneroko lanean sortutako arazoei aurre egiteko.

Adrian Mirandak azpimarratu duenez, "Multihelpers Bultzadara timing perfektu batekin heldu zen; izan ere, bizkortze garaian aurreikusita genuena abian jartzea, eta horrek plataforma martxan zegoela aurrera nola egin erakutsi zigun". Taldeko ikasketari dagokionez, nabarmendu du "une oro laguntzen zieten bidaideak" izan zituztela, "proiektu bakoitzak aurrera egiteko kanpoko ikuspegi bat emanez".

Argazki-oina (ezkerretik eskuinera): Armando Ares (Viscofan); Desiré Gahigiro (Uscal), Juan Manuel Gorostiaga (Mutua Navarra), Joseba Pérez (MTorres), Fermín Sagaseta de Ilurdoz (Jofemar), Santiago Villoria (Correos), Joseba Sagastigordia (Mondragon Korporazioa), Julio Maset (Cinfa) eta Ricardo Goñi (Cara Rural de Navarra).